

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

##### Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritza

#### **“Entidades del Área de la Discapacidad de Álava” delako enpresa-elkartearen estatutuen gordailua**

Enpresa erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko araudia betez, eta araudi horretan aurreikusitako ondorioetarako, honako hau aditzera ematen dut: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan eta Justizia Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritza, 2020ko urtarrilaren 9an emandako ebazpenaz, “Entidades del Área de la Discapacidad de Álava” izeneko enpresa elkartearen estatutuak Lurralde Ordezkaritzan (Vitoria-Gasteizko Samaniego kaleko 2an, 2. solairuan dagoena; kode postala 01008) 01/1/00001 zenbakiarekin gordailutzeko eta hori argitaratzeko agindu duela.

Honako hauek dira aipatutako enpresa elkartearen sustatzaileak eta beraren eratze-aktaren sinatzaileak: MCTR (ATECE ARABA erakundearen izenean), ABL (Asociación Autismo Araba erakundearen izenean), IBM (Asociación Alavesa de Personas con Baja Visión “Itxaropena” erakundearen izenean), EMJ (Asociación de Padres, Madres y Amigos de las personas sordas de Álava, ASPASOR erakundearen izenean), MERP (Asociación de Personas Sordas de Álava “Arabako Gorra” erakundearen izenean), JRM (AEMAR, Asociación de Esclerosis Múltiple de Araba erakundearen izenean) eta INB (Eginaren Eginez erakundearen izenean).

Bere jardun-eremua Arabako Lurralde Historikoa da eta bere eremu funtzionala bere estatutuetako 4. artikuluan ezarritakoa da.

Edozein interesdunek aztertu ahal du gordailututako dokumentua eta haren kopia eskatu. Era berean, interesdun orok aurkaratu ahal du dokumento hori, dagokion Lan-arloko Epaitegian, Lan Arloko Jurisdikzioa Arazten duen Legean (urriaren 10eko 36/2011) ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 9a

*Arabako lurralde ordezkaritza*  
**CARMEN DE CELIS CUEVAS**